

ERRONKAZ BETETAKO IKASTURTEA MARTXAN**EAEko HEZKUNTZA LEGEA, Hauteskunde Sindikalak, Lan Hitzarmena, Errelebo kontratuak... bada non borrokatu!**

1) Araba, Bizkai eta Gipuzkoako Lan Hitzarmenak jasotzen duen Eszedente eta Beharren prozedurari esker, oraingoan ere **kaleratzeak ekidin dira ikastoletan.** Aurrerantzean ere datozen erronka berriei hobe erantzuteko prozeduran sakontzen eta hobetzen jarraituko da. Ikastoletako langileriaren egonkortasuna bermatzeko, ikastolaz ikastola, **egiturazko lanpostu guztiak kontratu finkoz betetzen direla ziurtatzeko** lan egingo du sindikatuak.

2) Lan-hitzarmen berriaren negoziazioa. 2022ko Lan-hitzarmenaren negoziazioari hasiera eman zitzaion udaberrian. Afiliatu eta delegatuekin osatutako plataforma mahai-gaineratuko da iraila amaieran egingo den Lan-hitzarmeneko mahaian. Eskarien artean dago langileen soldata KPIaren arabera eguneratzea. LABek igoera hori irakaskuntza publikoko langileen soldatarekiko homologazioaren bidean lehen pauso gisa kokatzen du.

3) Sukaldeko langileen ratioak eta garbitzaileen metrajea zehazteko batzordea. Azken Lan-hitzarmenean kolektibo horietako langileen egoera aztertu eta ratio proposamen bat egiteko batzordea eratu zen. LABek proposamen bat gaineratu zuen ikasturte amaieran eta horren gainean lanean jarraitzen du. Langile horiek ikastolako hezkuntza komunitatetako kide direla sinestuz, LABen ustez, ezinbestekoa da zerbitzu horiek zuzenean ikastolek kudeatzea.

4) Erretiro Partzialeko kontratuak. Aurreko ikasturte osoan zain egon ondoren, azkenean argitaratu ziren Errelebo kontratuak gauzatzeko diru-laguntzak. Oraingoan, ez dago inongo berririk ikasturte honetan berrituko direnik. LABek borrokan jarraituko du Errelebo kontratuak gauzatu ahal izateko gakoa diren laguntza horiek ongibidean jartzeko. Ezinbestekoa da Ikastolek baldintzak betetzen dituzten langileei, lehenbailehen, kontratu horiek eskaintzea eta, era berean, Administrazioak kontratu horiek ahalbideratuko dituen diru-laguntza agindua ahal bezain pronto argitaratzea.

5) Hauteskunde Sindikalak. Ikasturte hasi berri hau, ikastola askotako ordezkariak sindikalak berritzeko tenorea izango da. LABentzat ezinbestekoa da prozesu horretatik indartuta ateratzea eta bere ordezkariak handitzea ikastoletan ere. Sindikatuak erronka handia du begi bistan. LAB sindikatuaren indarrak isla izango du ikastoletako langileen lan baldintzen hobekuntzan, eta hezkuntza arloan ikasturte berriak ekarriko dituen erronken ekitean.

“Hauteskunde Sindikalak funtsezkoak dira LAB indartzeko.”

“EAEko Hezkuntza Legea mahai-gainean dago. Balia dezagun aukera Eskola Publiko Komunitariaren bidean urrats bilakatzeko.”

6) EAEko Hezkuntza Legea. Irail erdialdean aurkeztu zen Hezkuntza Lege berriaren zirriborroa. Sindikatuak bere [balorazioa](#) egin zuen eta Euskal Eskola Publiko Komunitarioa eraikitzeke trantsizio lege gisa eragiten jarraitzeko konpromisoa adierazi eta prozesuan langileen lan baldintzak errespetatuak izan daitezzen zenbait xedapen gehigarri proposatu ditu. Legean eragiteko ikastoletako langileon borroka ezinbestekoa izango da. Ildo horretan **LABek bere ildo mobilizatzaile propioa aurrera eramateko lehen ekimen bat deitu du urriaren 6an Gasteizen.**

7) Jai arrotzak. Gogoratu gure egutegiaren egikaritze bidean lehen zita URRIAREN 12koa izango dela. Antola gaitzen ikastoletan jai arrotzei ezetz esan eta gure lan egutegia osatzeko.

Ikastoletako langileok merezi dugun Lan-hitzarmenaren negoziatorako, errelebo kontratuen gauzatzea lehenbailehen emateko, Hezkuntza Lege berrian euskal publikotasun berri bat eraikitzeke baldintzak sortzeko, ikastoletako langileok mobilizaziora eta borrokara joan beharko dugu. Asko dugu irabazteko eta indarra badugu, **GOAZEN BORROKARA!**

LAB IKASTOLETAKO LANGILEEN ESKUBIDEEN ALDE! GORA LANGILEON BORROKA!



Ikastolagipuzkoa@lab.eus
ikastolagipuzkoa1@lab.eus
ikastolabizkaia@lab.eus
ikastolabizkaia1@lab.eus
ikastolakaraba@lab.eus
ikastolaknafarroa@lab.eus

666779156
 666775746
 674137953
 674137908
 666774912

>irakaskuntza

